

**ERABAKIA, 2021eko uztailaren 23koa Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena, Horren bidez, MEDIKUNTZA ETA ERIZAINZTA FAKULTATEArako F 589 Atezain nagusia lanpostua aldi batez eta zerbitzu betekizunetan betetzeko deialdia ebatzi da.**

## GERTAKARIAK

**Lehenengoa.**- Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2021eko ekainaren 16ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

**Bigarrena.**-Gerentearen erabakiaren bidez, 2021eko uztailaren 5koa, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

**Hirugarrena.**- Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehenengoa.**- Honako arau hauek dira aplikagarri:

- Urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea (2015eko urriaren 2an EAOn argitaratua).

- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAan argitaratua).

- Akordioa, 2017ko uztailaren 18koa, AZPko funtzionarioaren plangintza batzordearena, AZPko funtzionarioei zerbitzuen eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeko buruzkoa 2017ko irailaren 28an Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak berretsia (2018ko maiatzaren 21eko EHAA).

- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

**Bigarrena.**- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko dena hartutako 2021eko urtarrilaren 28ko errektorearen erabakiaren bidez (2021eko otsailaren 12ko EHAAan), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

**Hirugarrena.**- Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZPko Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2017ko uztailaren 18an hartutako akordioa izango da. Akordio hau Gobernu Kontseiluak 2017ko irailaren 28ko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2018ko maiatzaren 21eko EHAAan).

**Laugarrena.**- Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak baloratzeko zehaztutako baremazioaren arabera puntu gehien lortzen dituen izangaia eta, betiere, laugarren artikuluan adierazitako hurrenkerari jarraituko zaio hautaketa egiterakoan. Hautatutako pertsona adierazitako epean hasiko da zerbitzu betekizunen xede den lanpostuan edo eginkizunetan.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau,

## ERABAKI DU

**Lehenengoa:** Deialdi honetako lanpostua zerbitzu betekizunetan aldi baterako esleitzea, hautatutako funtzionarioari, erabaki honetako I. eranskinean jasota dauden baldintzetan.

**Bigarrena.**- Esleipena 2021eko abuztuaren 13ko ondorio dataz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2017ko uztailaren 18ko erabakiaren 9. artikuluan adierazitakoaren arabera.

**Hirugarrena.**- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak.

**Laugarrena.**- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, dagozkien Zerbitzuko Buruei edo Administrazioaileei, eta nominen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

**Bosgarrena.**- Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakiok gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2021eko uztailaren 23an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2021eko urtarrilaren 28ko erabakia (2021eko otsailaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

UPV/EHUko GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteché



## **I. ERANSKINA ZERBITZU BETEKIZUNA**

---

**2021/06/16**

**Esleipenduna:** OYARBIDE ELIZONDO, José Antonio  
**Lanpostuaren izena:** Atezain nagusia  
**Lanaldia:** Goizez jarraitua (sarrera 7:30ean)  
**Eref.:** F 589  
**Zenbatgarrena:** 31  
**Maila:** 16  
**Taldea:** E  
**Eskala:** Menpekoa  
**H.E.:** 2; 1994ko urriaren 30a  
**Langunea:** MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA FAKULTATEA  
**Campus:** GIPUZKOA  
**BE:**  
**Ondorio data:** 2021eko abuztuaren 13a